

USVreact

UNIVERSITIES SUPPORTING VICTIMS OF
SEXUAL VIOLENCE

EUROPAKO UNIBERTSITATEETAN INDARKERIA SEXUALAK LANTZEKO PRAKTIKA ONAK

#USVREACT IKERKETA TALDEAREN TXOSTENA



Co-funded by the Rights,
Equality and Citizenship
Programme of the European Union

Material hau Europar Batasunaren Eskubide, berdintasun eta hiritartasun programaren laguntzaz ekoiztu da. Materialaren edukiak, ordea, beraien egileen ardura dira eta ezin dira inolara ere Europar Komisioaren iritzia ordezkarizat hartu. USVreact proiektuaren kodea: JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401

CC Creative Commons Atribución-NoComercial-Compartir igual 3.0 lizentziarekin argitaratua
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/>

Lehen argitalpena: 2018ko otsaila

Esku artean duzun txosten hau USVReact ikerketa proiektuaren (JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401) lehen faseetan egin genuen txostenaren eguneratzea da. Jatorrizko txosten hura hemen irakurri dezakezu nahi izanez gero: <http://usvreact.eu/best-practice-review/>

Jatorrizko txostena Pam Alldred eta Alison Phipps-ek editatua izan zen proiektuan parte hartzen duten kide ezberdinen ekarpenarekin (ikus azpiko zerrenda).

Txostenaren eguneratze hau Jokin Azpiazu Carballo, Marta Luxán Serrano, Barbara Biglia eta Sara Cagliero moldatua izan da.

Oharra: txosten honen edukiak azkenengoz bere publikazioaren unean eguneratu dira (2018ko otsailan). Bertan azaltzen diren informazioetako batzuk agian jada ez dira erabat zuzenak txostena irakurtzen duzun unean. Erabili aurretik informazioa eguneratuta dagoela ziurtatzera animatzen zaitugu.



Co-funded by the Rights,
Equality and Citizenship
Programme of the European Union

Material hau Europar Batasunaren Eskubide, berdintasun eta hiritartasun programaren laguntzaz ekoiztu da. Materialaren edukiak, ordea, beraien egileen ardura dira eta ezin dira inolara ere Europar Komisioaren iritzia ordezkarizat hartu. USVreact proiektuaren kodea: JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401

USVreact proiektuan formazio eta ikerketaz arduratu diren kideen zerrenda, txosten honi ekarpenak eginez:

Proiektuaren kordinazioa:
Brunel University London, <http://www.brunel.ac.uk>

Herrialde bakoitzeko kideak:

ERRESUMA BATUA
Brunel University London, www.brunel.ac.uk
Kordinatzailea: Anne Chappell
Ikerlariak: Charlotte Jones, Neil Levitan

University of York, www.york.ac.uk
Kordinatzailea: Vanita Sundaram
Ikerlariak: Mary Cobbett-Ondiek, Annis Stead

University of Sussex, www.sussex.ac.uk
Kordinatzailea: Alison Phipps
Ikerlariak: Rachel O'Neill, Naaz Rashid, Gillian Love
Formatzailea: Valentina Cartei

GREZIA
Panteion University of Social and Political Sciences (PUA), www.panteion.gr
Kordinatzailea: Athena Athanasiou
Ikerlariak: Alexandra Zavos
Asistente: Voula Touri
Formatzaileak: Matina Papagiannopoulou, Kiki Petroulaki

ITALIA
Università di Torino (UNITO), www.cirsde.unito.it
Kordinatzailea: Norma De Piccoli
Ikerlariak: Mara Martini
Laguntzaileak: Federica Turco, Paola Deiana
Formatzaileak: Renata Bonito, Arianna Enrichens, Mara Martini
Komite Zientifikoa: Elena Bigotti, Roberta Bosisio, Mia Caielli, Joelle Long, Luca Rollè

ESPAINIAR ESTATUA
Universitat Rovira i Virgili (URV), www.urv.cat
Kordinatzailea: Barbara Biglia
Ikerlariak: Sara Cagliero, Edurne Jimenez Pérez
Laguntzaileak: Alba Sáenz Suárez, Carla Alsina Muro
Formatzaileak: Ivana Soto León (Sara Cagliero eta Barbara Bigliaren laguntzaz)

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), www.ehu.eus
Kordinatzailea: Marta Luxán Serrano
Ikerlariak: Jokin Azpiazu Carballo, Mila Amurrio Velez
Formatzaileak: Jokin Azpiazu Carballo, Ainhoa Narbaiza Irizar

CEPS Projectes Socials, www.asceps.org
Kordinatzailea: gigi guizzo
Zuzendaria: Juan Pedregosa
Kordinatzaile eta ikerlaria: Eulàlia Gorga

Herrialde bakoitzeko kide elkartuak

LATVIA
Marta Resursu Centrs Sievietem, www.marta.lv

SERBIA
Viktimološko društvo Srbije - Victimology Society of Serbia, <http://www.vds.rs/>

ESPAINIAR ESTATUA
Mondragon Unibertsitatea, www.mondragon.edu
Universidad Pública de Navarra - Nafarroako Unibertsitate Publikoa, www.unavarra.es
Universitat Autònoma de Barcelona, www.uab.cat
Universitat de Barcelona- www.ub.edu
Universitat de Vic, www.uvic.cat
Universitat Pompeu Fabra, www.upf.edu

ERRESUMA BATUA
Keele University, <https://www.keele.ac.uk/>
Lancaster University, www.lancaster.ac.uk
Trinity Laban Conservatoire of Music and Dance, www.trinitylaban.ac.uk
University College London, www.ucl.ac.uk
University of Brighton, www.brighton.ac.uk
University of the West of England, <http://people.uwe.ac.uk>
York St John University, <https://www.yorks.ac.uk/>
University College of London, www.ucl.ac.uk

ITALIA
Città di Torino – City of Turin, www.comune.torino.it
Politecnico di Torino, www.polito.it



Europako unibertsitateetan indarkeria sexualak lantzeko praktika onak

Txosten honen helburua unibertsitate eremuaren baitan indarkeria sexuali buruzko prestakuntza-, prebentzio- eta jardun-izaera duten ekintzen berri ematea da, USVreact proiektuaren (JUST/2014/RDAP/AG/VICT/7401) garapen prozesuan zehar praktika on gisa identifikatu ditugu-eta. Ekintza horiek xeheki deskribatzearekin bat, beraien ahulgune eta mugen inguruan hausnartu dugu. Izan ere, etorkizunean suerta daitezkeen formakuntza-esperientziei begira, ikaskuntza iturria izan daiteke gogoeta hori. Azkenik, beste ekintza mota batzuetan ere jarri dugu arreta, esaterako, ikasleek antolatutako kanpaina aktibista eta esku-hartze artistikotan.

Aurretik zeuden formakuntza-ereduak

Azken urteetan, hainbat unibertsitatek jarri dituzte martxan indarkeria sexuali aurre egiteko kanpaina eta formakuntza-ereduak. Proiektu honetan parte hartzen duten Erresuma Batuko unibertsitateen kasuan, baita beste batzuetan ere, alde aurretik zeuden diagnostiko eta datuek aipatutako prozesuen katalizatzaile gisa jardun dute. Gainontzeko parte-hartzaileei dagokionez (estatu espainiarreko, Italiako eta Greziako unibertsitateak), indarkeria sexualaren gaia esploratu gabe zegoen testuinguruetan aktibatu dituzte kanpaina eta formakuntzak; hala, gaiaren inguruko eztabaidari hasiera emateko balio izan dute.

Zer egiten ari gara unibertsitate eremuan lehen erantzunen kontuetan? Indarkeria sexualen inguruko informazio orokorra ez ezik, horiei aurre egiteko moduen inguruko informazioa ere badute unibertsitate batzuek beraien web-orrietan; baliabideei buruzko informazioa da, batik bat (elkarteak, babes-ibilbideak), ez dago formakuntza-jarduerarik. Oso gutxi dira beraien prestakuntza-programetan, irakasleriari zein beste langileei zuzendutakoetan, indarkeria sexuali heltzeko edukiak dituzten unibertsitateak. Gaur-gaurkoz, oso zaila da horien sendotasuna, irismena eta eragina ebaluatzea.

Nabarmendu nahiko genuke zenbait unibertsitateetan garatu dituzten formakuntzak eredu izan direla beste batzuentzat: Sussex programa kasu, SOAS unibertsitatean (Londres) ere erabiltzen da. Era berean, azpimarratu nahiko genuke programa guztiak ez direla lehen erantzunean ardatzen. Programa puntualak garatzen dira sarri, hein handi batean talde aktibistek bultzatuta, hedabideek argitaratutako datu esanguratsu edo informazioen babesean. Alde horretatik, aipagarriak dira autodefentsa feministaren oinarritzko ezagutzak transmititzeko ekimenak; ikasle taldeek zein profesionalak inplementatu dituzte eta emakumeei edota subjektu ez normatiboek (LGBTIQ) zuzenduta daude.

Dena den, gehiago sakondu duten programak ere antzeman ditugu, adibidez, West Englandeko Unibertsitatearen "Intervention initiative" ("Esku-hartze ekimena"). Indarkeria sexualen lekuko diren ikasleei zuzenduta dago proiektua; elkarren arteko babesa sustatzearekin bat, sexu-indarkeria kasuen aurrean jarrera pasiboak baztertzeko du helburu. Manchesterreko Unibertsitatearen "We get it" ("Lortu dugu") kanpaina ere oso interesgarria iruditzen zaigu; indarrean

dauden unibertsitateko mekanismoak ikusgarri egiteko eta indartzeko asmoa du, unibertsitate-komunitateak horiek erabili eta hedatu ditzan. Horrez gain, unibertsitate batzuek, Oxfordek, esaterako, unibertsitateko langileak trebatu dituzte jazarpenean adituak izan daitezzen. Amaitzeko, Durham Unibertsitatean lantalde espezializatua osatu zuten 2015. urtean; harrezkero, indarkeria sexuarekin loturiko formakuntzak eskaini ditu.

2018ko otsailean, ikerketa hau amaitzen ari ginen garaian, "Managing, Researching, and Enabling Respectful Sexual Conduct in Higher Education" biltzarra egin zen. Zenbait ekimen interesgarri aurkeztu zituzten bertan; besteak beste, "Bystander Initiative" ("Utz diezaiozun behatzaile izateari"), Lancashire Unibertsitate Nagusian (UCLAN) jazarpen sexualari eta indarkeriari aurre egitea helburu duena; edo Sheffield-ko Unibertsitatean martxan jarri duten "Consent Conversations" ("Kontsentuari buruzko solasaldiak") ekimena.

Hortik kanpo apenas aurkitu dugu denboran zehar jarraipena izan duen ekimen koordinaturik. Gure arreta merezi dutenen artean daude LGTBIQ kolektiboek edo kolektibo feministek bultzatutako ekimenak, baita berdintasun arloan lan egiten duten unibertsitateetako erakundeek sustatutakoak ere; adibide gisa, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Berdintasunerako Zuzendaritza edo Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko (UAB) Berdintasunerako Behatokia. Azken horrek, bertako langileei zuzendutako Diskriminazioa, jazarpen sexuala eta tratu iraingarria ikastaroa eskaintzen du 2016az geroztik; genero indarkeria mota desberdinak hauteman eta kokatzeko beharrezkoak diren kontzeptu eta nozioak eskaintzen ditu, eta, aldi berean, horrelako egoerei aurre egiteko eta horiek salatzeko unibertsitateak dituen tresnak ematen ditu ezagutzera.

Garrantzitsua deritzogu hausnarketa horretan berdintasunarekin edo sexualitate eta genero aniztasunarekin erlazionatutako zenbait ekimen sartzeari; nahiz eta ez dituzten zehazki indarkeria sexualak lantzen, horiek barne-hartzen dituzten gaiez arduratzen dira. Hala, Rovira i Virgili Unibertsitateak (URV), Emakumeen Institutu Katalanarekin elkarlanean, Bigarren Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako goi mailako zikloko irakasleriari zuzendutako ikastaroa eskaini zuen 2015ean; indarkeria matxistaren aurrean prebentzioa eta erantzuna lantzea zuen helburu. Bestalde, ikasleei zuzendutako ikastaro bat inplementatu zuen 2012an Bartzelonako Unibertsitatean (UB), "La Universitat de Barcelona contra la violència masclista: Uneix-t'hi de deBò" ("Bartzelonako Unibertsitatea indarkeria matxistaren aurka: batu zaitez").

Azken urteetan zehar Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ere garatu ditu era horretako ekimenak; esaterako, barne-formakuntzaren markuan, langileentzat hizkera ez sexistaren inguruko ikastaroa. Ekimen horiek areagotu egin dira 2018. urtean, ugariak izan baitira Emakunderekin elkarlanean martxan jarri diren online ikastaroak: hizkera inklusiboari buruzkoak, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunaren oinarriko printzipioen gainekoak edota maskulinitate berrien ingurukoak. Estatuko beste unibertsitate batzuek ere abiarazi dituzte antzeko programak, onlinekoak zein presentzialak, eta ikasleek ere jarri dituzte abian zenbait ekimen, aurrez aipatutako emakumeentzat autodefentsa feminista ikastaroak, adibidez. Orobat, Coimbrako Unibertsitateko (Portugal) ikasle, ikasle ohi eta irakasleek egindako lana nabarmendu nahiko genuke; izan ere, talde ez-mistoetan egindako eztabaida prozesua aktibatu dute eta kontzientziario lana egin dute unibertsitate-egoitzen testuinguruan. Ikerketa-ekintza kualitatiboaz baliatuta, agerian utzi dute emakumezkoen aurkako indarkeria mota ugari daudela presente egoitza horietan.

Formakuntzen edukiak

Gai komunak antzeman ditugu proiektu honen bitartez inplementatu ditugun formakuntzen aurretik zeuden formakuntza gehienetan.

AURKEZPENAK ETA EZTABAIDAK: parte hartzaileei transmititutako oinarriko elementuak. Erresuma Batuan erabilera irekidun baliabide batzuk erabili daitezke testuinguru berean garatuko diren beste formakuntza batzuen euskarri gisa, esaterako, Women's Campaign-en Disclosure Training Workshop edo Alison Phipps-ek eta Elsie Whittington-ek Sussex unibertsitatean eskainitako tailerra; "Lad culture"-ari buruzko diapositiben aurkezpenak berreskura daitezke azken

horretatik. ("Lad Culture" kontzeptua bereziki Ingalaterran garatu den kontzeptua da, mutil gazteen artean sortzen eta elikatzen den harreman mota eta portaera matxisten multzoa deskribatzeko. "Lad" hitzak euskeraz itzulpen zuzenik ez duen arren, "morroi" edo "mutiko" bezala itzuli genezake, nahiz eta ingelesez beste pisu bat duen hitzak).

ENPATIA ARIKETAK: parte hartzaileak indarkeria sexualak jasan dituzten pertsonen azalean jar daitezten. Biktimizazioaren dimentsio sozial, psikologiko eta emozionalak lantzea dute helburu.

ROL-JOKOA: egoerak antzeztean datza; enuntziatu edo ildo orokorretatik zein esperientziatik abiatzen dira, indarkerien eta horien narrazioaren ulermena sustatze aldera. Hori da, esaterako, UWEren (University of West London, Bristol) formakuntzaren elementu nagusia.

BINETAK EDO BIDEOAK: indarkeria egoerak komiki formatuan edo bideo laburren bitartez erakusteak ahalbidetzen digu parte hartzaileek egoera horietan egingo luketenaren inguruko eztabaidari ekitea. Responding to disclosure of Sexual Violence (Indarkeria sexualen narrazioei erantzuten) programa kanadiarrak garrantzi handia ematen dio teknika horri.

"EGIA/GEZURRA" MOTAKO GALDERA: zenbait baieztapen aurkezten zaizkie parte hartzaileei eta egia edo gezurra diren adierazi behar dute, indarkeria sexualen inguruko aurreiritzi eta mitoen inguruko eztabaida hasteko asmoz.

GLOSARIOAK: "trauma", "eraso sexual" edo "jazarpena" moduko kontzeptuen definizioak banatu eta eztabaidatzen dira, elementu horiek eta beste batzuk nola hautematen ditugun zalantzan jarri eta sakon aztertzeko helburuari jarraiki.

Mugak

Martxan jarri diren programak oso baliagarriak eta garrantzitsuak badira ere, muga batzuk dituzte. Lehenik eta behin, eraso baten aurrean egin beharrekoaren inguruko informazio oso zehatza eskaintzeko joera dute. Garrantzia handiko informazioa den arren, indarkerien bizipen-alderdiei arreta jartzeko aukera baztertzen du oso maiz. Horrez gain, ez da indarkeria sexualek har ditzaketen forma ezberdinen (jazarpena, bortxaketa, hitzeko erasoak, mehatxuak, eduki sexuala duten argazkiak baimenik gabe partekatzea, besteak beste) behar bezain besteko lanketa egin. Azkenik, asko dugu egiteko formakuntzek ikuspegi intersektionala eskuratu dezaten; ikuspegi horrek ahalbidetuko digu ikasle zein langile trans*, razializatu, prekario eta abarren espezifikotasunak mapan kokatzea.

Halaber, irakasleriaren eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren (AZP) artean hautematen diren jazarpen eta beste indarkeria mota batzuei formakuntza saioetan eskaintzen zaien denbora urriak eta isiltasunak kezkatzen gaitu, baita irakasleriaren eta AZPren aldetik ikasleei zuzendutako indakeriek ere. Tamalez, gailentzen den ikuspegia ondorengoa da: indarkeria sexualen arazoa ikasleei dagokie. Unibertsitate anglosaxoietan hezkuntza-eredu pribatua ezarri da; ikasleak bezeroak bezala ikusten dira eta, hortaz, beraien "arazoei" irtenbidea aurkitzerako orduan, ikuspegi asistentzialista nagusitzen da. Joera gorakorra duen ikuspuntu horrek muga asko ditu gure testuinguruan. Alde batetik, irakasleek eta AZPk indarkerien agente eta hartzaile gisa duten posizioa ez ezik, lan-prekarizazioarekin eta gure unibertsitateetan geroz eta garrantzia gehiago duen meritokraziarekin duten harremana ikusezin egiten dute. Beste aldetik, ez du ahalbidetzen ikuspegi asistentziala gaindituko duten eta unibertsitate-egituretan funtsezko aldaketak eragingo dituzten neurriak eta jokatzeko moduak azaltzea. Estatuko datu gutxi ditugu arren, datu horiek berresten dute indarkeriak hainbat norabidetan gertatzen direla; horien artean, irakasleen aldetik ikasleei zuzendutako indarkeriak dira salatzen zailenak.

Indarkeria sexualen aurka lan egiteko hainbat ikuspegi

Aldez aurretik aipatu ditugun formakuntzen elementu interesgarriak hartu eta gure testuingurura moldatzen saiatu gara gure formakuntza programen bitartez; era berean, aipatutako muga aurrean alternatibak eskaintzeko ahalegina egin dugu. Estatu espainiarraren kasuan, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateak (URV) osatutako lantaldeak enfasi berezia jarri du indarkeria sexualak inguratzen dituzten egitura-elementuak lantzean. Ikuspegi asistentziala eta biktimizazioa gainditu eta, horren orde, aldaketa eta ahalduntzea sustatuko dituzten estrategiak proposatzeak eskatzen zuen ulertzea indarkeria sexualen erroak ez direla jokabide pertsonaletan sustraitzen; indarkeria sexualak gizarte-egituren adierazgarri dira eta horien kontrol zein sendotze mekanismo gisa jarduten dute. Halaber, dakienak ez dakienari ezagutzak transmititzearen alde egin beharrean,

elkarrizketa eta eztabaidak sortzeko saiakera egin dugu. Horretarako, aurretiko esperientzien zenbait elementu izan ditugu inspirazio.

Ikasleen eta koletiboen kanpainak

Erresuma Batuan nabarmentzekoak dira indarkeria sexualari buruzko gaiez ohartaraztea helburu duten zenbait kanpaina; adibide gisa, NUS-eko (National Union of Students - ikasle sindikatua) emakumeen I heart consent (Kontsentsua atsegin dut) kanpaina edo Oxforden burututako It happens here (Hemen gertatzen da), non, besteak beste, mugikorren aplikazio bat garatu duten. Gure inguruan aurrez aipatu ditugun autodefentsa feminista kanpainak inspirazio iturri izan badira ere, ez ditugu erreferentziatzen izan, gure formakuntza publiko mistoari zuzenduta baitago. Hala ere, azpimarratu nahiko genuke indarkeria sexualen gaia lantzeko espazio ez-mistoen beharra agerian utzi dugula gure proiektuan; behar hori gure egin dugu etorkizunean unibertsitate eremuan egin ditzakegun jardueri begirako gomendioetan. Nolanahi ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeentzat autodefentsa feminista prestakuntzen presentzia; horietako batzuk irmoki finkatuta daude.

Elementu artistiko eta bisualen erabilera ere inspirazio iturria izan da. 2014. urtean The mattress performance (carry that weight) (Koltxoien performancea; pisu hori gainean eramanez) izeneko performancea egin zuen Columbiako Emma Sulkowitz ikasleak. Unibertsitate barruan edonora koltxoa berekin eramanez zetzan ekintza artistikoa; unibertsitate bereko ikasle batek bortxatu ostean instituzioak emandako erantzuna salatzea zuen helburu. Hala, 23 ikaslerekin bat egin eta unibertsitatearen aurkako salaketa jarri zuten. Horrelako ekintzek berehalako arrastoa uzten dute inguruan eta, komunikazio teknologiei esker, globalizatu egiten dira; prozedura ofizialetatik haratago, ekintza sozialaren garrantzia azpimarratzea ahalbidetzen dute. Des(a)fiar a Violência Sexual. Partilha e denúncia situações de Violência Sexual (Indarkeria sexualari desafio egin. Indarkeria sexualak partekatu eta salatu) kanpaina burutu zuen aurrez aipatutako Coimbra unibertsitateko taldeak. Haren bitartez, eredu garria izan daitekeen eta beste hainbat lekutan gauzatu daitekeen prozesua egikaritu zuen. Ikasle, ikasle ohi eta irakaslez osaturiko emakume talde informal eta ez-mistotan elkartu eta eztabaida zein entzute saioak egin zituzten. Saio horietan sortutako indarkeria narrazio eta kontakizunak modu kolektiboan landu zituzten, ahalduz feministarako tresnak erabilia. Adierazpen artistiko ugari barne-hartzen dituen aldizkari/fanzine bat izan zen prozesu horren emaitza.

Gai horri heltzeko oso tresna baliagarriak izan daitezke beste zenbait adierazpen artistiko ere, antzerkia, esaterako. Goldsmiths Unibertsitatean egin zen Sexual Harrassment in Higher Education (Sexu jazarpena unibertsitatean) mintzaldian antzestu zuten The girls get younger every year (Neskek geroz eta gazteagoak dira); ikasle gazte baten eta gizonen irakasle baten arteko abusuzko harremana kontatzen du. Gure ingurura etorrita, Averlasailas antzerki taldeak antzerki-foro formula erabiltzen du, zapalduen antzerkiaren printzipioetatik abiatuta. Izaera sexualdun indarkeria matxista irudikatzen duten egoerak antzesten dituzte beraien sketch batzuetan, ikusleekin batera horien aurrean nola jokatu eta zer egin dezakegun eztabaidatze aldera. Ikusleek egiten edo antzesten dituzten proposamenen bitartez garatzen da egoera. USVreacteko jardura batek antzerki mota hori izan zuen inspirazio: unibertsitatearen baitan jazo den jazarpen edo beste indarkeria sexual mota baten berri dugunean ematen dugun erantzunaren edo erantzun ezaren jatorria aztertzea du helburu jarduerak.

Goldsmiths unibertsitatean bertan, USVreact proiektua martxan jarri eta gutxira, Sarah Ahmed pentsalarariak dimisioa aurkeztu zuen, bere ustetan, unibertsitateak ez baitzuen modu egokian erantzun jazarpen sexual kasu baten aurrean. Indarkeria sexualak salatzeke unibertsitate-prozedurak nola erabili behar diren jakiteko ezagutzen transmisio hutsera ez mugatzerik bultzatu gintuen dimisio hark. Prozedurak egoteak ez du esan nahi horiek zalantzan jarri gabe helarazi behar direnik, ez behintzat modu arrakastatsuan aplikatzeko dituen mugak agerian utzi gabe. Izan ere, ohikoa da unibertsitateetako talde aktibistek beraien zalantza eta desadostasunak azaltzea protokolo askok proposatzen dituzten zigor-neurrien irismenaren aurrean. Neurri horiek urriak izan ohi dira sarri, eta, gainera, oso maiz, ez dute funtzionatzen, atzeratu egiten dira, berriz biktimizatzen dute, edo, administrazio-markoarekin ala salatutako pertsonen estatusarekin talka egin gabe (jazarpena egiten duena unibertsitate barruan botere handia duen gizona denean), neurri egokiak hartzea ezinezko egiten duen ikuspegi juridiko baten baitan harrapatuta gelditzen dira. Hori dela eta, lan egiten dugun

instituzioarekiko jarrera kritikoa izaten saiatu gara, bere bertute zein mugak seinalatuta.

Kontuan izan beharreko beste zenbait gogoeta

Formakuntzak planteatzeko moduaren inguruko zenbait hausnarketa gehitu nahiko genituzke. Jarraian azalduko ditugun ikaskuntza horiek bi jatorri dituzte: batetik, aurrez azaldu ditugun praktiken analisia; bestetik, parte hartu dugun indarkeriarekin, genero gaiekin eta sexualitatearekin loturiko formakuntza ereduen diseinua (GAP Work proiektu europarra, adibidez).

Lehen gogoeta ikastaroen izaerari buruzkoa da; hau da, derrigorrezko programak edo borondatezkoak diren. Indarkeria sexualei lehen erantzuna emate aldera, unibertsitateko langile guztientzat derrigorrezko formakuntza unibertsalak ezartzen dituen planteamendua tentagarria da, batez ere, kuantitatiboki daukan gaitasunari begira. Dena den, eta arrazoi ugari tarteko, borondatezko parte-hartzea hautatu dugu. Lehen arrazoa da, aurrez adierazi dugun moduan, gure inguruan oso urriak izan direla gaia landu duten formakuntzak. Beste arrazoi bat da derrigorrezkoak diren formakuntzek alderdi praktikoagoetan eta ezagutzen transmisio bertikalean zentratzeko joera dutela; formakuntza-espazioan egon nahi ez duten pertsonekin eztabaida zein ikaskuntza partehartzaile prozesuak ezartzea oso zaila da. Zenbait planteamendurenganako erresistentziak areagotu egiten dira eta transformazio-lana egitea zailtzen dute. Haatik, badakigu borondatezko ereduak polarizazioa dakarrela, gure inguruan hala hauteman dugu: alde batetik, horrelako gaietan geroz eta formatuago dauden unibertsitateko profesionalak daude (normalean, aurretiko interesa dute eta, maiz, baita printzipio eta aktibismo feminista eta LGTBQIkiko adskripzioa ere); bestetik, formakuntzarik edo gertutasunik ez duten profesional masa dago, ez bada, erresistentzia argia eta planteamendu neo-matxisten aldeko lerrokatzea duena. Bestalde, derrigorrezko formakuntza inplementatzeko erabakia ez dago gure esku. Gehienaz ere, borondatezkoa izateko aukera adostua da.

Bigarren gogoetari helduz, argi dugu egiten den esku-hartze orok bere ebaluaziorako irizpideak ezarri behar dituela. Unibertsitateko berezko dinamiek alde batera utzi dituzte ebaluazio printzipioak, merkatuaren eta elitismo akademikoaren beharrei erantzuten dieten bikaintasun printzioak lortu nahian. Etika feministaren proposamenak jarraituz, zenbakiekin loturiko alderdiei (zenbat pertsona trebatu ditugun) erantzungo dien ebaluazio eredutik haratago, epe ertain eta luzera begira formakuntzaren ebaluazioa mimatuko duen eredu baten aldeko apustua egin dugu, unibertsitate espaziotan eraldaketa sozialerako ekintza eta ekimenen continuum gisa ulertuta. Epe laburrean, mekanismoak (ebaluazio galdetegiak edo parte-hartzaileei zuzendutako elkarrizketak, kasu) ezarri ditugu; horren irismena ebaluatzeko, eta hainbat mailatan formakuntzaren inguruko eraldaketak eta ikuspegi anitzak gehitzeko asmoz: ikuspegia, metodologia, gaiak, adibideak eta jarduera zehatzak. Unibertsitate barruko zein kanpoko aktibista feminista eta LGTBQren ekarpen eta kontraste eredu batekin konbinatuta, ebaluazio eredu horrek proiektuaren amaieran argitaratu ditugun formakuntza ereduentzat euste-puntua erantsi dio.

Proiektuaren webgunea:
<http://usvreact.eu>

KONTAKTUA:

marta.luxan@ehu.eus

jokin.azpiazu@ehu.eus